

# BERRIGARA

19 zenbakia

Jardun elkartea, Bergara


1991, maiatzak 3



**Ehun urte Kruz  
Gallastegi jaio  
zela**



**Rufina Olasagasti:  
Kultur Gestore  
berria Bergaran**



**Josexo Muniategi:  
Hamar urte  
eskubaloiari**




**TB pribatuak:  
Hiru aukera berri  
bergarrentzat**



**SAN ANDRES AUTOMOBILAK**

**ROVER 200 SERIEA, 16 BALBULA ETA  
1.785.000 PZTATIK AURRERA  
Araba Etorbidea 13, 20.500 ARRASATE  
Tfnoa: 79 95 22 / 79 53 98**



# GAMAK

## INFORMATIKA GAUZAK



### SALTOKI TERMINALA T.P.V.

✓ POS-401 saltokiko terminal berri hau diseinu zaindu baten eta goi mailako ikerketa-lan baten ondorioa da.

✓ Saltokiko terminalak erabateko soluzioa eskaintzen dizu:

funtzionala, elkargarritasuna eta prestazio bikainak. Zure negozioa edozein dela ere (farmazia, autozerbitzua, jatetxea, erropadenda, etab...), guztiz kontrolatuta eduki ahal izango duzu saltokiko terminalari esker.

✓ Orain arteko kutxa erregistratzaile ereduak guztiz aldatzen dituen sistema, dirua gordetzeaz gain almagaz, fakturazio eta kontabilitatea ere eramaten duena.

ARTZAMENDI 1 Tfnoa: 76 56 85 Faxa: 76 55 97 BERGARA

# BONOFOTOA

**BERRIGARA**

*Jardun Elkartea*

1991, maiatzak3



M. A. Elkorbereziar



## **Rosario Garitano**

Bederatzigaren BONOFOTOA oraingoa.  
Zozketa egin eta 10.000 pzt.a ko saria Rosario  
Garitanorentzat.

Berak esan bezala, Balento etxearen argazkia Ibarra  
kaletik aterata zegoen.

Zorionak beraz, Rosariori!

Besteok badakizue; saiatu beheko galdera erantzuten!

***Zein da XIII. mendeko etxe honen izena?***

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfinoa: \_\_\_\_\_


Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

**Errotalde Jauregia**

**20.570 Bergara**

**Oharra:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo  
BONOFOTOOrako gordeko litzateke, FOTOPOTEAN

# GIARTZU



## GIMNASIOA

BONI LASKURAIN 3, ETXABEA

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA

# BERGARAKO AZOKA

<p><b>JUANITA MORENO</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 12 54 Azoka: 76 02 44</p>	<p><b>GABLONDO</b></p> <p><b>Harategia</b></p> <p>Azoka: 76 26 98 Etxekoa: 76 26 53</p>	<p><b>JANARI</b></p> <p><b>FRESKOAK</b></p> <p><b>AUKERATUAK</b></p>	<p><b>LURDES</b></p> <p><b>Harategia</b></p> <p>Esneko Moxala</p> <p>Tfnoa: 76 12 17</p>	<p><b>IZOTZ</b></p> <p><b>Konjelatuak</b></p> <p><b>Errefrijeratuak</b></p> <p><b>Marskoa</b></p> <p>Tfnoa: 76 56 91</p>
<p><b>MERTXE</b></p> <p><b>Oilaskoak Urdaitegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 54 67</p>	<p><b>YANIRE</b></p> <p><b>Frutadenda</b></p> <p>Tfnoa: 76 52 34</p>	<p><b>LA BERMEANA</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 15 16 Etxekoa: 76 00 48</p>	<p><b>PATRI</b></p> <p><b>Harategia Txerikitegia</b></p> <p>Tfnoa: 76 02 20</p>	<p><b>PRIMI</b></p> <p><b>Arraindegia</b></p> <p>Azoka: 76 15 90 Poligonokoa: 76 21 91 S. Antonikoa: 76 21 08</p>

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara  
Tfnoa: 760397

**Laguntzailea:** Bergarako Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberebizar

**Erredakzioe:**

Jon Andueza. Eneko Azkarate

**Maketazioe:**

Edume Arenaza. Jon Andueza

**Publizitate eta harpidetzak:**

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan  
Martin Elxepuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Uzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,  
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel  
Elkoroberebizar, Josune Iñarra eta  
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga  
eta Ainhoa Bikufia

**Argazki laborategia:** A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,  
J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.  
Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta  
Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak** Josu Okina  
eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 2.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esaneren eta erit-  
zieren erantzunkizunik.



## 3 OSTIRALA

- **Antzerkia:** Ermu herriko antzerki tailerrak antzezturik "Juicio sin perjuicio" antzezlan. Novedades aretoan gaueko 10etan
- **Kontzertuak:**
- Elorrixon, Arriola Kultur Etxean, *Joxelu Anaiak*.
- **Goardiako farmazia:** Estella (Matxiategin)

## 4 LARUNBATA

- **Zinea:** "Postales desde el filo" 5, 7.30 eta 10.30etan
- **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: **Ansotegi-Unsain / Zabala-Berna; Ladouche-Errasti/Etxaniz-Arretxe;** eta ihardunaldiarekin bukatzeko **Ansola-Alberdi III / Intxaurren-Andueza.**
- **Kontzertuak:**
- Txibiston, 11.00etan, *Udo eta Rage*.
- San Pedro parrokian *Zarautz Abesbatza*. Arratsaldeko 8.30etan
- Arrasaten, Kiroldegian, 10.30etan, *Zakarrak, E.H. Sukarra eta Su ta Gar*

- Soraluzeko Gaztetxean, *Mr. Blue*, 10.30etan.
- Aretxabaletan Gaztetxean *Beer Mosh eta Radical H.C.*
- **Goardiako farmazia:** Mozos (San Pedron).

## 5 IGANDEA

- **Zinea:** "JPostales desde el filo" 5, 7.30 eta 10.15etan.
- **Dantzaldia:** Izadi taldearekin Martin Deunaren Enparantzan. Arratsaldeko 6.30etan
- **Goardiako farmazia:** Mozos (San Pedron)

## 6 ASTELEHENA

- **Zinea:** "Postales desde el filo", 7.30etan.
- **Goardiako farmazia:** Camacho Oxirondo Enparantza 4.
- **Bideo-foruma:** Gaztetxean 7retan

## 7 ASTEARTEA

- **Bideo-foruma:** Gaztetxean 7etan
- **Hitzaldia:** *Tritloia eta Fondoko probak*. Hawaiko Iromana. UNEDeko aretoan 7.30etan
- **Goardiako farmazia:** Puy (Barrenkalen)

## 8 ASTEAZKENA

- **Hitzaldia:** "Tritloia eta fondo probak" Entrenamendua eta dietetika. UNEDen 7.30etan.
- **Mahaingurua:** "Droga Gizarteko arazo bat" Gaztetxean arratsaldeko 7etan
- **Goardiako farmazia:** Guallar (San Antonion).

## 9 OSTEGUNA

- **Mahaingurua:** "Toxikomanoaren asistentzia sare publikotik", Gaztetxean arratsaldako 7etan.
- **Goardiako farmazia:** Estella (Matxiategin)

## Aukeran...

✓ Droga gaiari buruzko jardunaldiak gaztetxean.



## KIZKUR

Ileapaindegia  
Solariuma

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

## ETXAGI

Afariak  
Bazkariak  
Gosariak  
Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua

JATETXEA

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

# ANDIZI

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

**Errotuloak, igeltseritza  
eta pintura lanak.**

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

# KIÑU

**ARGAZKINDENDA**

**ARGAZKILARIAK**

**Martxotik aurrera  
Barrenkale 35ean**

Tfnoa: 76 58 05  
BERGARA

## San Blaseko zabortegia:

Kaixo Berrigararrok:

San Blaseko zabortegiari buruz bi adierazpen egitea nahiko nuke. Jakingo duzuenez zabortegi honetan, uraren tuboak sartzen ari direlako, ezinezkoa da toki hori zabortegi bezala erabiltzea. Horregatik, orain dela gutxi Udalak zabortegia ixtea erabaki du.

Alde batetik zabortegi hau itxi aurretik Udalak eduki duen egoera pasiboa salatu nahiko nuke. Nire ustez Udal batek horrelako egoerak aurrez prebenitu beharko lituzke zabortegi hau egon den egoera negargarrian berriz egon ez dadin.

Eta bestalde, salatu nahiko nuke, nahiz eta ia egun osoa zabortegia Udaltzainez zainduta egon, badagoela oraindik zaborrak botatzera joaten den herritar inzibilizaturik. Beraz kontzientzia gaitzen zabortegi hori itxita dagoela eta hemendik aurrera San Juan edo Uberakoak erabili beharko ditugula.

Ander M.

## Deba Ibaiaren egoera:

Gaur egun Deba ibaiaren egoera tamalgarria da. Astero kolore ezberdinez ikus dezakegu, baita izkiña guztiak plastikoz eta zikinkeriaz josirik ere. Zoragarria izango litzateke ibai garbi pasatzea eta arrainez josirik egotea. Uste dut noizbait garbi ikusteko aukera izango dudala. Agur bero bat.

A. Gabilondo



### • ERITETXEAK

Osasun etxea ..... 76 10 82  
Larrialdiak ..... 76 12 94  
Arrasateko ospitalea ..... 79 53 00

### • GURUTZE GORRIA

Bergara ..... 76 55 76

### • DYA

Antzuola ..... 76 62 91

### • ANBULANTZIAK

Bergaran ..... 76 13 59  
Gipuzkoako ambulanz. .... 45 87 44

### • SUHILTZAILEAK

Zubillagan ..... 78 28 00

### • POLIZIA

Udaltzaingoa ..... 76 14 69

Ertzaintza ..... 76 53 40

### • GARRAIOAK

P.E.S.A. .... 76 16 46

Taxiak ..... 76 19 50

### • HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde ..... 76 13 68

Aitonak ..... 76 21 40

### • BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea ..... 76 39 42

Epaitegia ..... 76 14 72

Kiroldegia ..... 76 56 41

Igerilekuak ..... 76 20 51

Kultur Etxea ..... 76 44 46

IMI ..... 76 55 49

## Tiira ba!



## Josu Okina

## ❑ Triatloiar buruzko hitzaldiak

*Triatloia eta Fondoko Probak* izenburuz bi hitzaldi antolatu dituzte Jardun Elkartek eta Udal Kirol Zerbitzuak datorren astearte eta asteazkenerako, hilak 7 eta 8.

Asteartean Hawaiko *Ironman* triatloiar buruz, Dina Bilbao eta Txiki Plazas triatloilariak jardungo dute. Bideoak eta diapositibak ere emango dira.

Asteazkenean, berriz, Antxon Gorrotxategi (Euskadiko Itzuliko medikua) eta Alejandro Altunak (kirol Medikua eta triatleta) *Entrenamentua eta dietetika* gaia aztertuko dute.

## ❑ Mendi Irteera

Gorla Alpino Taldeak eta Pol-Pol Mendizale Elkartek mendi irteera antolatu dute maiatzaren 12rako. Goizeko 6etan plazan bildu, eta Bardeetara joango dira eguna pasatzera. Joan nahi duenak, eman dezala izena lehenbaitlehen Pol-Pol tabernan.

## ❑ Drogari Buruzko Ihardunaldiak

Bergarako Gazte Asanbladak eta Drogomenpekotasunaren Prebentziorako Udal Batzordeak, Drogari Buruzko Ihardunaldiak antolatu dituzte datorren asterako.

Astelehen eta asteartean, hilak 6 eta 7, zine-foruma egingo da. Hurrengo bi egunetan, berriz, mahainguruak antolatuko dira. Ostiral gauean, herriko rock taldeek heroinaren kontrako kontzertua burutuko dute Gaztetxean; eta larunbatean, azkenik, mendi irteera egingo da, goizeko 9retan Gaztetxetik irtenda.



## ✓ Monseñor Cesareo Gabarain hil

Asteartean hil zen Arrasateko Ospitalean Cesareo Gabarain, Aita Santuaren kapeilau-burua. Asteazken arratsaldean jende asko elkartu zen Antzuolako elizan, Gipuzkoako Apezpikua den Jose Maria Setien buru zela egindako hiletetan.

Cesareo Gabarain 1936an jaio zen Hernanin. 60. hamarkadan, bost urte eman zituen Antzuolako parroko moduan. Idazle eta kazetaria; kirola eta musika ziren gizon apart honen zaletasunik nagusienak.

*Aita Santuaren musikaria* gaitzizenaz ezaguna, 40 LP kale-ratu zituen, bere abestiak hizkuntza guztietara itzuli zirelarik (agian ezagunenak *El Pescador* eta *Juntos como hermanos*).

Pablo VI eta Juan Pablo II Aita Santuen lagun-mina; Real Madrileko Chendo eta Butrageforekin harreman estuak zituen; baita Periko Delgado eta Jose Miguel Etxabarriekin ere.

Antzuolako kanposantuan lurperatu dute. Goian Bego.

## ✓ Gureak tailerrak tokiz aldatu

Asteleheneko plenoan, Udalak atzeratuen *Gureak* tailerra tokiz aldatzeko erabakia hartu zuen. Tailerra Seminarioko sotanoetan dago, egoera penagarrian, eta erabakiaren ondorioz, egokitze lanak egin eta gero Zabalotegiko Patronato San Miguel-en egoitzan jarriko da.

Egin beharreko obrak 9 milioi pza.ko aurrekontua dute, horietako 4 Udalaren kontu izango direlarik. Tratua, bestalde, bost urterako sinatuko da (beti ere luzatzeko aukerarekin).

Gaur egun, Bergara, Antzuola eta Elgetako 16 lagunek dihardute *Gureak* tailerrean lanean, bi monitoreren ardurapean. Oraindik argitu gabe dago Patronatoko egokitze lanak noiz hasiko diren.



# HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57  
BERGARA


# ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA  
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA



KONDE  
PAÑADEROKUA  
Burdiñate 1  
BERGARA

□ **Jaunartzeak**

Asteburuan Lehenengo Jaunartzeak izan genituen Bergaran. Santa Marinaran 28 neska-mutiko bildu ziren igandean egun berezi hau ospatzera. San Pedron, berriz, larunbatean 11, eta igandean 34.

□ **Hezkuntza**

*Siadeco* enpresak Bergarako hezkuntza sareari buruzko ikerketa bat egingo du Udalaren aginduz.

4 milioi t'erdi pzta.ko aurrekontuaz, *Siadecok* herriko hezkuntzaren arlo ezberdinak jorratuko ditu.



✓ **Hiru kate gehiago**

Aurrerantzean, orain arteko lau kate publikoez gain, hiru telebista pribatu berri hartuko ditugu, gure aparailuetan.

Karakateko errepitidorea martxan jarri zutenetik, San Migeleko antenara eta handik gure etxeetara helduko zaizkigu Antena 3 (21 kanalean), Tele 5 (24ean) eta Canal Plus (29an). Azken hau ordaintzekoa da eta programazio guztia ikusia ahal izateko 15000 pezeta pagatu behar da dekodifikagailu bat eskuratzeko eta beste 3000 hilean kuota bezala. Antena indibidualetan ez da aldaketarik egin beharko baina antena kolektiboa daukatenek (gehienek), amplifikagailu bat jarri beharko dute telebista kate bakoitzeko. Beraz, antenak konpontzen dituen norbaitekin harremanetan jartzea komenigarria izango da.



✓ **Metal gaua larunbatean**

Metal gaua prestatu digute Txibistokoez larunbaterako; gaueko 11tan hasita, Alemaniatar etorritako *UDO* eta *Rage* taldeak izango ditugu bertan.

*UDO*, lehen *Accept* taldeko liderra izandako Udo Dirkschneider abeslariak sortu zuen duela urte batzuk. Hevy Metalaren ordezkariak ditugu.

*Rage*, berriz, agian talde ezezagunagoa izanik, indar handiz heldu da Trash Metalaren mundura.

*UDO* eta *Rage*; *Rage* eta *UDO*. Gau elektrikoa larunbatean.

□ **Azoka berriz**

Asteleheneko Udal Osoko Bilkuran, Santa Marinaran eraikiko den azoka berriaren lanak *Dragados y Construcciones S.A.* enpresari adjudikatzea erabaki zen.

HB eta EAren baiezeko zortzi botuek, 189.500.000 pzta.ko aurrekontuarekin jarraitzea erabaki zuten. EAJ, PSOE eta EE, berriz, abstenitu egin ziren.

□ **Ecomovil**

KIUB, Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak jakitera eman duenez, kotxeen debaldeko azterketa kanpainan zehar 274 auto aztertu dira. Hauetako 266 egoera kaxkarrean zeuden

□ **Antzerkia**

*Ermua Hiria* taldeak "Juicios y Prejuicios" obra emango du gaur, ostirala, 10etan, Novedades-en.

*Nahikari*

RICARDO A.  
ELIZALDEren

PINTURA  
ERAKUSKETA

Aurrera jarraituko duen bidaia baten arrasto eta apunteak direla esango nuke...

Mahasterreka 20, Tfnoa: 76 57 71

**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

**GOIERRI**

**AUTOGIDARIEN ESKOLA**

Fraiskozuri Enparantza, 5  
BERGARA

Tfnoa: 76 41 50



# Rufina Olasagasti

## Kultur Gestore berria



**Aste honetan eman da ezagutzera Berrgarako Kultur Gestorearen izena. Hainbat proba gainditu ondoren, Arrasaten bizi den elduaiendar bat arduratuko da he-mendik aurrera Bergarako kulturaz. Bere izena Rufina Olasagasti, 46 urte.**

medio batzuk behar dituzte, bai instalazio aldetik eta bai bestelakoetan ere. Ezin dute lanik egin mediorik ez badute. Gestore baten zeregina, horiek eskuratzeko bideak ematea eta beraien betebeharrak betetze-ko udalaren asmoen barruan jartzea da.



Orain arte non egin duzu lan?

- Lan desberdinak egin ditut, administraritzan, irakasle bezala eta orain teknikari gisara hezkuntza eta organizazio arloan.

Zertan datza kultur gestorearen lana?

- Bergaran talde asko eta jende asko ari da kultura ekintzak moldatzen eta aurrera eramaten, bai musika, kirol, txontxongilo eta beste zenbait arlotan. Talde hauek beraien ekintzak aurrera eramateko

Zergatik aurkeztu zinen postu honetara?

- Alde batetik, modu batean edo bestean kultur arloan aritu izan naizelako ezaugera dudan ezkerotik; bestetik ikasketa aldetik ere, Soziologia ikasia dut eta pentsatzen dut badaukadala ezagutza bat kultur arazoei erantzun zuzenagoa eman ahal izateko.

Nola ikusten duzu kultura-mundua Bergaran?

- Kultur gune garrantzitsua izan da Bergara historikoki. XVIII. mendeko Seminario-

tik hasita ia etengabe eman dira kultur ekintzak. Hau dela eta iharduera asko garatu izan dira, bai musika arloan eta bai beste arlo askotan ere, inguruetan gertatu ez den bezala.

Ematen al zaio kulturari merezi duen garrantzia?

- Kultura entenditzeko modu asko daude. Kultura espektakulo bezala ententitu ezker, espektakulo handiak edukitzen ditugu TBtaren bidez, baina hori kulturaren alderdi bat besterik ez da. Nire ustez, kulturaren alde nagusia norberari espresatzeko bideak ematea eta norberaren gaitasunak desarroilatzeko baliabideak eskuratzen laguntzea da.

Kultura suspertzeko formula majikorik ezagutzen duzu?

- Formula majikorik ez dago. Garrantzitsuena norberak, eta kasu honetan kultur taldeak dauzkaten asmoak bideratzeko erraztasunak ematea da.

Nortzuk bultzatu behar dute kultura, erakunde publikoek edo herriko taldeek?

- Kultura norberakdituen baliabideak garatzea dela ulertzen badugu, jende guztiak parte hartu beharko luke kultura bultzatzen. Dena den udalak edo beste instituzioek ere lagundu beharko lukete. Elkarrekin ententitu beharra daukate garapena lortzeko.

**Zuhaitzi**  
 AFARIAK: Asteburuetan  
 Aste barruan enkarguz  
 Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

**P. MANSO**  
 Optika  
 OPTIKOA, OPTOMETRISTA  
 IRIZAR IRILBIDEA 2 Tfnoa: 76 27 86 BERGARA



**ETXEPARE - BILINTX**  
**LIBUBUDENDA**  
 Liburuak eta diskoak  
 Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

# Kruz Gallastegi

## Arto hibridoaren sortzailea

Kruz Gallastegi, 1891ko maiatzaren 3an jaio zen Bergaran. Ostiral honetan, beraz, ehun urte betetzen dira mundura etorri zenetik. Nekazaritza eta abeltzangoaren alorretan egindako lanak ospe handia eman zion mundu zabalean. Bizitzaren paradójaz, ordea, bergarar askorentzat gizon apart hau ia ezezaguna da oraindik gaur...

**K**ruz Angel Gallastegi Unamuno, gaur egun Barrerkaleko 24. ataria den etxebizitzan jaio zen 1891ko maiatzaren 3an.

Santos Gallastegi eta Eugenia Unamunoren seme nagusia; bere ama Miguel de Unamuno ezagunaren senitartekoa zen. Hiru anai-arreba izan zituen Kruzek: Maria, Tomasa eta Doroteo.

Dominikoetan burutu zituen lehenengo ikasketak. Ondoren Bilbora joan zen Batxilergoa egin asmoz, eta baita 1908an bukatu ere.

Aita jakitun handia omen zen ortuzaintza, fruitazaintza eta abeltzaintzaren alorretan. Gauzak horrela, nekazaritza ikasketak egitera bialdu zuen semea Frantziako Limoges-era. Loragintza eta zuhaitzaintzan diplomatu zen.

Handik, Alemaniako Stuttgart-era abiatu zen Kruz, bertako *Real Escuela Superior de Agricultura* delakoan nekazal Injineru titulua eskuratu zuelarik.

Garai hartan ezagutu zituen Julio eta Juan López Suárez anaia galiziarak, gerora berebiziko garrantzia izan zutenak Gallastegiren bizitzan.

### Estatu Batuetara

Euskal Herrira itzuli eta soldaduska amaitu eta gero, Dinamarca, Suedia eta Noruega bisitatu zituen.

1917an Estatu Batuetara abiatu zen, urtebeterako ikasketak egiteko dirulaguntza lortu ondoren.

*Heward & Carwelleko* Unibertsitatean doktoratu zen.

Hurrengo urteetan, geroz eta garrantzia haundiagoa



D. F. Jones eta Kruz Gallastegi, New Haven-en artoekin lanean

zeukan Landare genetikan murgildu zen buru-belarri.

Juan López Suárezekin batera, Estatu Batuetako genetista onenekin jarri ziren harremanetan, tartean Tomas H. Morgan (Nobel saria irabazi zuena) eta Donald F. Jones. Azken honekin, gerora eragin izugarria izan zuten esperimenduak egin zituen Kruzek Connecticut-eko zentru esperimentalean. Bien artean lortu zuten lehenengo aldiz *semilla de híbridos dobles de maíz* delakoa.

### Ameriketarik Galizlara

1921eko martxoan, Kruzek Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. A Coruñan Bergarara ekarriko zuen tren hartu, eta kasualitatea!!

Monforte parean, hara non agertu zitzaion bagoian Juan López Suárez laguna.

Juanek Madrilera joateko eskatu zion Kruzi, bertan On Ramón y Cajal jaunarekin elkarrizketatu asmoz.

Elkarrizketaren ondorioz, Kruz Gallastegi Santiagora abiatu zen 1921eko apirilaren 1ean, eta *Escuela de Veterinaria de Santiago* delakoaren pabilioietan *Misión Biológica de Galicia* izeneko laborategia jaio zen Gallastegiren zuzendaritzapean.

Hurrengo urteetan ikaragarrizko lana burutu zuen bergararrak bertan. Nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotutako hainbat arlo landu bazituen ere, arrakastarik haundiena gaztainondo eta arto landaketaren hobekuntzan lortu zuen.

# ASAGABASTER JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabala

Gabiria 9, Tfnoa: 79 27 27 - 79 13 55 ARRASATE



### Lan eta lan

Ez zegoen, ez, Kruz Gallastegiren jakinmina asetzetik. Egindako guztiak egin eta gero, 1923an oraindik ere albaitaritzan lizentziatzeko astia izan zuen.

1924ko maiatzaren 3an (33 urte betetzen zituen egunean), Elisa Fraiz Tafall galiziarrekin ezkondu zen. Bikoteak bi seme-alaba izan zituen: Juan Antonio eta Mari Lourdes.

Euskara, gaztelera, frantsesa, ingelesa, alemana, italiarra, portugaleria eta galegoa menderatzen zituen. Nazioarteko makina bat kongresutan izan genuen hizlari. 1945ean, *Encomienda de Caballero de la orden del mérito agrícola* eman zioten, eta urtebete beranduago *Gran Cruz de la Orden de Alfonso X el Sabio* delakoa jaso zuen.

1960ko ekainaren 7an hil zen Pazo de Gandaronen. Azken arnaseria arte jarraitu zuen lanean. Agian horrexegatik, zientziaren munduak ez du inoiz bergarar ospetsu hau ahaztu.

## Juan Jose Hernando Gallastegi "Osabak izugarri maite zuen Bergara"

Kruz Gallastegi bergarar unibertsalenetarikoa izateaz gain, biologia eta genetika arloetan hainbat aurrerakuntza lortu zituen arren, bergarar askok ez dugu bere lanen berririk izan. Zientziz gizon honen izakera hobeto ezagutu asmoz, Juan Jose Hernando Gallastegi, Kruzen arreba zen Maria Gallastegiren semearekin elkartu gara.

Juan José Henando Gallastegi, Kruzen loba. 63 urte, jubilatua, bizi guztian zerrajeran lanean ibilia. Hitz onak besterik ez dizkigu esan bere osaba eta aitapuntakoa zen Kruz Gallastegiri buruz, "jakituna bezain pertsona ona zen Kruz. Bi urte pasa nituen Galizian berarekin. Niretzat bigarren aita izan zen".

14 urterekin Bergaratik alde egin zuen arren ez zuen sekula bere jaioterria ahaztu, "Izugarri maite zuen Bergara. Gaztetatik herritik alde egin bazuen ere, toki guztietan bera Bergarakoa zela aitortzen zuen. Herri txiki batekoa naiz, Bergarakoa, esaten zuen. Gainera euskara primeran egiten zuen, beste zortzi hizkuntzen artean".

Mundu guztian zehar



1942ko Uda. Kruz (eserita dagoena) familikoekin. Mutikotxo Juan Jose dugu

ikasten ibili ondoren, Galizian ezarri zuen bere bizilekua. Elisa Fraiz-ekin ezkondu eta ez zen berriz ere jaioterrira itzuliko, nahiz eta "Urtero hamabost egun pasatzera etortzen zen Bergarara. Sagarpen igarotzen zituen bazkalondoak bere lagunekin, Eustakio Prakamotx, Ricardo Landa eta beste batzuekin".

Errepublika garaian Abeltzantza Zuzendari Orokorra (Director General de Ganadería) izendatu zuten, urtea egin zuelarik Madriden lanean, "Politika ez zuen gehiegi maite, ez zegoen gustora Madriden. Politikoa baino zientzia gizona zen, ikerlaria".

Mundu zabalean, bereziki Galizian, oso preziatua izan bazen ere, Bergaran ez du merezitako errekonozimien-

durik jaso, Juan José ados ez dagoen arren: "Bergaran kale bat eman diote, eta neurri batean nahikoa dela uste dut. Kontutan izan behar da, gaztetan Bergaratik alde egin zuenetik, ez zela hona berriz bizitzera etorri".

Galiziako lau probintzietako seme kuttuna izendatu eta Pontevedran eta La Granja De Salcedo herrian kale bat eman zioten.

Dena den, Argentinan bizi den Justo Garateri Bergaran omenaldi bat egin ziotenean, honek argi esan zuen, "Egunen batean, hemen aurrean jaio zen Kruz nere lagunari horrelako bat jarri beharko diezue". Kruz Gallastegi zientzilari ospetsuak hori eta gehiago merezi bait du.


# BERROYA, E. A.

INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA  
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2  
Tfnoa: 76 00 01

BERGARA



**Euskalduna  
Taberna**  
OSINTXU

**ONENA  
TINDATEGIA**  
Barrenkale 29

**CAMACHO**  
\* DROGERIA  
\* USAINDEGIA  
BIDEKURUTZETA 24  
BERGARA. Tfnoa: 761335

**ETXE-  
-AUNDI**  
Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k  
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**TB kanale pribatuen etorrerak zer eragin izango du lau katai publikoetan?**



**Alberto Odriozola**  
31 urte

Eragina izango du, seguru. ETBk, adibidez, diotenez audientziaren %23a galdu du. Konpetentziak programak hobetzera behartuko die.



**Kontxi Isuskiza**  
36 urte

Kate publikoek audientzia galduko dute, pribatuek ematen dituzten pelikulak direla eta. Umeak ere marrazki bizidunekin erakartzen dituzte... eta igerriko da.



**Karmele Rementeria**  
27 urte

Uste dut kate publikoak gutxiago ikusiko direla; jendeak berrien alde egingo du, pelikula gehiago ematen dituztelako. Kate publikoen arma informazioa izango da.



**Juan Mari Retes**  
30 urte.

Hainbeste katerekin, Zapping gehiago egingo da. Ez da programa konkretu bat ikusiko, baizik eta denetik apur bat. ETBri, TVEri baino kalte gehiago egingo diote.

**KANTALDIA**

**XABIER LETE eta  
ANTTON VALVERDE**



Euskadi Irratiaren  
laguntzarekin

MAIATZAK 10, GAUEKO 10:30etan  
BERGARAKO FRONTOIAN

Sarrerak : Aurrez: 800 pzta. Takilan: 1.000 pzta.




✓ **Imanol Irigarai, berrogeitamar urte apaiz**

Duela bi aste, berrogeitamar urte bete ziren Imanol Irigarai apaiz egin zela.


Gipuzkoako beste bederatzi apaizek ere urrezko eztaiak betetzen zituztela eta, Jose Maria Setienek emandako Mezan bildu ziren guztiak Donostiako Seminarioan.

Imanolek 75 urte ditu. Donostian bizi da. Añuan, Itsasondon eta Ecuador aldean ibili eta gero, 20 urte eman zituen Angiozarren. Garai hartan, gainera, Institutuko irakasle izan genuen. Aldameneko argazkian, hain zuzen, bere ohizko estiloaz klasea ematen ikusten dugu.




**Zertan dihardute ba?**

**OXIRONDO ELKARTEA**



Maiatzaren azken egunetan 25 urte beteko dira Oxirondo Elkartearen sortu zenetik. Lehenengo presidentea Jabier Amenabar izan genuen, eta gaur egun Josu Lazkanok betetzen du kargu hori. Guztira 51 bazkide dira Elkartearen.

**AITOR ZABALETA**



Begararrak garaipena eskuratu zuen igandean Azpeitian jokautako *Urrakiko Igoeran*. 35 pilotu aritu ziren 6,6 km.ko proban. Aitorrek 3 minutu eta 32 segunduko denboraz irabazi zuen Euskadiko Mendi Txapelketaren lehenengo zitan.

✓ **Txontxongilo arrakastatsuak**

Joan den astean Bergaran antolatutako Nazioarteko Helduen Txontxongilo I. Erakustaldiak izugarriko arrakasta lortu zuen. Jende ugari bildu zen Novedades aretoan, Gaztetxean, eta San Martin plazan egindako emanaldietara. Jaialdira etorritako hamar taldeek maila aparta erakutsi zuten; antolaketa, bestalde, txapela kentzeko modukoa!



✓ **Ikusi eta ikasi**

Ezohizko antzerki emanaldia izan genuen ostiralean Mariaren Lagundian. Londresko Why Not taldeak, ingeles hutsean eskaini zuen bere emanaldia. Bost aktore hauen lana jarraitu asmoz, 30 ikusle inguru bildu ziren aretoan; eta baita aukera aprobetxatu ere, antzerkiarekin gozatzeaz gain, ingelesa praktikatu bait zuten. Ikusi eta...



**ORTZI**  
**Erretegia**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68



**A. ZANGITU**

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

## Hau dok barreguria

Behin, Plazentziako Meltxorrenian, jentez ingurata, halako ahozabal batek zeroian sakia. Bazan han oillagorra, erbixa, tiro hotsa eta abarra. Tertulixako batek zifuan:

- Laga laga berorri, oin be botako jok botatzekoa bat eta.

- Ba sinistu nahi ezpozue be oin kontatzen dihardutena egi egixa dok. Neu hementxe nagon moduan. Atzo illuntzian neure begixekin ikusitakua. Pagobedeinkatu-tik bera nentorrela San Andres-pian geldittu nitzuan keixa arbola batzuk daren txaran. Geratu banintzuan geratu nintzuan. Haura zuan haura. Jesus: Sentidu najuan eskupetarik eza. Hango sagastarro, zozo-bidigarro eta abarrek etxeukan akaburik. Mutillak, mutillak, zer zuan haura! Hango zarraparria, hango hangua. Gutxien gutxienez bostehun bat bazituan. Hoixe bai!

Ingurukuak mutu geldittu zien.

- Zer ba, dudia dago ala?

- Hi txotxo, badakik gero bostehun txori heguak zabalik zenbat dien?

- Eskolatik pe hi bestian banajaok ni gero e. Bostehun esan juat eta bostehun bostehun dituk hemen eta Japonen. Neuk enajuan ba ikusi pixuan pixuz arbolia jausi biharrian...

- Bestiok inuzentziak gala uste dok, ala? Plazentziako zeruan etxaok lekuik bostehun txepetx heguak zabalik kabitze.

- Hik zer dakik pa, sekula ez haiz Eibartik pe pasau ta. Bostehun ezpazittuan ezittuan urrin ibilliko.

- Hori beste gauza bat dok. Kendu beruana, kendu.

- Bueno, ehunen bat bazituan behintzat.

- Tira, tira, ezta ehun be.

- Posturia jokatuko nostake gutxienez berrogetamar baziela.

- Berrogetamar larregi ez ete dok, larregi...

- Txara hartan zeuan zarraparriakin jokatuko neukek hogetabostetik gora bazerela...

**Juan San Martin**

"Zirikadak"etik moldatua

## Ezkioko agerpenak (2): Elizaren gaitzespena

Historiagileek diotenez Ezkioko agerpenen atzean, besteak beste, manipulazio politikoa zegoen. Errepublikan sortu berria zen eta indar integristenek Ezkiokoaz baliatu nahi izan zuten ateotzat zeukaten errejimena erasotzeko. Ikusle askok esan ohi zuten Amabirjinak esaten zietela laster gerra odoltsu bat zetorrela eta erlijioaren defendatzaileek irabaziko zutela.

Mateo Mujikak, Gipuzkoako Gotzaiak hasieratik begi txarrez ikusi zuen asuntua. "Agerpenak Ezkion nere baimenik gabe?" esan omen zuen. Bi gauzogatik jarri zen kontra:

1. Elizak gauza sobrenaturalak interpretatzeko duen monopolioa zalantzan jartzen zelako.

2. Ez zuelako bere Eliz-Barrutia konspirazio politikoa nabarmen baten aintzindaritzan nahastua ikusi nahi.

Dena dela bi urte pasatxo iragan beharko zuten elizaren gaitzespen ofizial definitiboa etorri arte. 1933ko Irailaren 7an Mujikak, Ezkion ez dela ezer sobrenaturalik gertatzen aldarrikatzen du eta manipulazioa salatzen. Aldi berean, Ezkioko Anduagara joatea debekatzen die sinistunei, "Komunio Santua ukatuko zaiela" mehatxatuz.

Debeku honen ondoren gainbehera etorri ziren peregrinazio jendetsuak, baina talde txikiak jarraitu zuten, eta jarraitu dute, Ezkiora joaten gaur arte. "Amabirjinak ez die barkatuko Ezkiokoa sinisten ez dutenei", diote bidenteek. Dena dela, badirudi aspaldian Ezkiok indarra galdu duela, eta Bizkaiko Unbek berriz, hartu.

**J. M. Elexpuru**

*Iturria:* MUGA. 2. zka.

Idoia Estornés, "Las apariciones de Ezkioga".

### TOKI-EDER

### Taberna

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi Tfnoa: 76 51 84 BERGARA




## ayastury

### JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30  
Tfnoa: 76 11 31  
BERGARA

## LONBIDE

### OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



## Josetxo Muniategi Hamar urte eskubaloian

□ Zerk bultzatu zintuen eskubaloian jokatzera?

Futboleko oso txarra nintzen eta ez nuen aukerarik ikusten, baina kontaktuzko kirolak beti gustatu izan zaizkidanez, eskubaloia eta rugbya, esaterako, eta bigarrena Bergaran inork jokatzen ez zuenez, eskubaloian sartzea erabaki nuen. Izango dira hamar urte hasi nintzela.

□ Dena den, zu txirringulari ibilia zara...

Bai, aurretik *Lokatzan* aritu nintzen. Baina bakarkako kirolak oso gogorrak dira, sakrifizio handia eskatzen dute. Maila batera heltzeko gogor egin behar da. Ona izateaz gain, ordu asko sartu behar dira, egunero bakar

bakarrak entrenatu...

□ Eta rugbya, posible al da Bergaran rugby talderik osatzea?

Bergara oso txikia da taldelako kirol berri batentzat. Pentsa, hemen futboleko, saskibaloian eta eskubaloian haur ugari ari direla eta laugarren kirol batentzako jenderik ez dago. Gutxi gara, eta hemendik aurrera gure artean tira-bira gogorrak izango ditugu, kalitatezko neska-mutilak gureganatzeko orduan.

□ Eskubaloiak azken urteetan goruntz egin badu ere, futbolarik, C.D. Bergarako lehen taldea zehatzago, kaxkar dabil azkenaldi honetan. Zerikusirik badu horrek zuk esandakoare-

kin?

Ez. Arazo koiunturala dela uste dut. Baldintza batzuk eman dira egoera hortara ailegatzeko, filosofia aldaketa... Baina, futbolarik errege izaten jarraitzen du Bergaran oraindik. Gaztetxoak, futboleko pentsatzen dute bakarrik, euren idoloak futbolarik dira.

□ Orain arte daramatzazuen urteetan lortu al duzue aparteko titulorik?

Txapelak ez dira dena, bere garrantzia duten arren. Gainera, Gipuzkoan tituloak lortzea ez da batere erraza. Katalunia eta madrilekin batera potentzia bat gara estatu mailan. Bestalde, kirol berria kontsidera genezake Bergaran eskubaloia. Hamar urte inguru bakarrik daroiagu eta gazte mailetan oinarriak finkatzen duela laupabost urte hasi ginen. Kadete mailako mutikoak gogor ari dira, baina urte batzuk itxoin beharoko ditugu fruituak ikusteko.

□ Lortuko al du eskubaloiak, saskibaloiak bizi izandako gorakada?

Oso zaila da. Azken urteetan asko hobetu bada ere, eskubaloien egiturak ez daukate zerikusirik saskibaloienarekin.

□ Elgorriaga Bidasoaren denboraldia izugarria...

Bikaina benetan, Errege Kopa irabazi zuen, Liga txapelketan ere baditu aukerak, eta Europako Errekopako finala irabaziko duela uste dut.

## Bergaran gero eta hobeto

Eskubaloia Bergaran kirol berria kontsidera genezake. Federatu mailan lehen aldiz duela 13 urte jokatzen hasi bazen ere, azken 6 urteetan gogor aritu dira lanean C.D. Bergara elkartearen eskubaloia sailekoak. 13-20 urte bitartean dauden 70 neska-mutil federatuak, bost taldetan banatzen dira. Hiru mutikozkoetan: Xabier Lijoren kadeteak, Juan Luis Ruizen jubenilak eta Josetxo Muniategi entrenatutako seniorrak. Nesken kadete eta jubeniletaz, berriz, Iñaki Cantero arduratzen da. Honez gain, Udala Kirol Eskolaren barruan, Bergarako ikastetxe ezberdinetako 200 haur inguruk, larunbatero Seminarioko patioan eskubaloian jokatzen dute. Lan bikaina, beraz, eskubaloia saileko entrenadoreek harrobiarekin egiten dutena. Instalazioak, aldiz, ez datoz bat, Bergaran praktikatzeko den kirolarekin. Gaur egun kantxa estali bakarra, Labegarrietako Kiroldegikoa da. Bertan, eskubaloiaz gain, saskibaloia, futbitoia eta tenisa, besteak beste, praktikatzeko dute astero 300 bat bergararrek. Arrasaten, hirugarren jokaleku estalia eraikitzen ari dira. Bergaran, osteraz, bat bakarra eta hondatuta...

IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNEKO MENUA  
AURREZ ESKATUTAKO  
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Raixabal  
Gozotegia

Artekale 9, Tfnoa: 76 11 83

Bidekurutzeta 20 / 22 Tfnoa: 76 12 19



**E**z dago dudarik garai bateko euskal kantagintzan Bergarako bi taldek, Urretxindorrek eta Ameslariak taldeek, izan zutela protagonismorik.

Bigarrenaren sorrera orain dela 27 urte inguru izan zen. Garai hartan 20 urte inguruko bi gaztek, Joxe Inzak eta Justo Idigorasek bikotea osatu zuten. Lehenengo pausu haiek erdaraz kantatuz eman zituzten. Handik lasterrera Jabier Idigoras eta Iñaki Arriaran sartu ziren taldean eta laukote hura euskaraz kantatzen hasi zen.

Kanten letra gehienak erdarazko kantaren baten itzulpenak izaten ziren eta Juan Antonio Letamendia, orduan Angiozarreko apaiza zenak, euskaratzen zizkien. Hemen dakartzuegun argazkiak ere bereak omen dira.

Bertan, aipatutako laukotea ageri da.


**Eskumako erretratua:** kotxetik tiraka, Justo; txofer, Jabier; gitarrarekin, Iñaki eta txoferraren ondoan Joxe.

Urte pare bat eginda Joxek taldea utzi egin zuen eta Jose Luis Mendia, zumarragarra, eta Roman Arbizu, urretxuarra, gaur egun Urretxuko Alkate dena, sartu ziren.

Boskote honek bi disko txiki kaleratu zituen. Hango kantarik ezagunenak: "Bihotz, arima, bizitza", "Gizon eroria", "Arren Jauna", etab.

Taldeak lau urte inguru egin eta desegin egin zen.

*Estepan Plazaola*  
Berriemaile: *Joxe Inza*



*jolas*



**GABON HAUETAN...  
ZURE OPARI DENDA**

BARRENKALE 27





**ETXEBIZITZA**

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnora.
- Pisu salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera.
- Pisu behar dut alki-lerrean. Tfnoa: 764255.
- Pisu behar dut alokairuan. 765837.
- Pertsona bat behar du Mizpildin pisua osatzeko. 765837.
- Pisu salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Lokal komertziala alkilatzen da bolun. Tfnoa: 763797.

- Pisu salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Pisu salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserría alokatu nahi dugu Bergaran. 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

**LANA**

- Andra edo neska euskalduna behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 765141.

**DENETARIK**

- Ihauterietan galdu-tako argazki kamara badaukazu. Deitu: 763270. Sarituko da.
- IPUIN dendaren albo lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

**SALDU-EROSI**

- Soinu bat salgai. Deitu 764195era.
- 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. 761201.
- Bizikleta 10.000 pztan salgai. Kuadroa Moncayo eta piezak Zeus. 761161.

- SANSUI 7900 anplifikadorea salgai, plato semiautomatiko eta bi soinu kaja oparizat. 20.000 pzt dena. 762852.
- Salgai ski eta bizikleta eramangailua; bi lokarri, eta erretenarekin 762852.
- Egoera onean dagoen R-6 GTL bat erosiko nuke. 770940 (lanorduetan).
- Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.
- *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9retatik aurrera.
- Kolore biziko MBK mendiko-bizikleta berria salgai. 765580.

**Hildakoak**

**Jose Antonio Gonzalez**  
Apirilak 26an  
**Blanca Unzeta.**  
Apirilak 27an

**BERRIGARA**

**Eskatu eta etxean**

**76 03 97**

**Beheko**

**Taberna**

MENESTRA ETA KONEJOA  
DIRA GURE BEREZITASUNAK  
**ANGIOZAR Tfna: 76 55 74**

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

# HITZALDIAK

## ✓ TRIATLOIA eta FONDOKO PROBAK

☐ Maiatzak 7: **IRONMAN** (Hawaiko Triatloia)


**Dina Bilbao** ( Euskadiko eta Estaduko txapelduna)

**Txiki Plazas** ( Hawaiko proba egindakoa)


☐ Maiatzak 8: **ENTRENAMENDUA eta DIETETIKA**

**Antxon Gorrotxategi** (Euskadiko Itzuliko Medikua)

**Alejandro Altuna** (Kirol-medikua eta triatleta)



Lekua: **UNED** Ordua: **7:30**



# LAKET

**Gizonezkoentzako eta  
mutil gazteentzako moda.**

**Orain Barrenkale 35ean.**

**Saso honetarako andrazko  
eta neska gazteentzako  
moda Irizar Ibilbidea 2an.**